

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Urduñako Udala****Zerga-ordenantzaren aldaketaren behin behineko onaspena**

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren eta zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko eta administrazio jarduerak burutzeagatiko, IV. Hirigintza-lizentziak eta exekuzio-aginduak tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzeko erabakia jendaurrean ikusgai jartzeko epea igarotakoan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, ordenantza hori behin betiko onartuta geratzen da Udaltzaren 2019ko urriaren 30eko bileran hartutako erabakiaren bidez.

Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 18ko 9/2005 Foru Arauan xedatutakoa betetzeko asmoz, aldaketa hori argitaratzen da:

Urduñan, 2019ko abenduaren 26an.—Alkatea, Itziar Biguri Ugarte

**E. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN
GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ZERGA-ORDENANTZA**

Zergaren zerga-kuotaren%95erainoko hobaria izango dute udalerrian kokatzen diren eta enplegua sustatzen duten enpresa eta saltokiek.

Zergaren kuota osoaren gaineko hobaria enpresak Urduñan duen jarduera ekonomikoari zuzenean atxikitako langileen kopuruaren arabera aplikatuko da:

- A) 0 langiletik 2ra: %25.
- B) 3 langiletik 4ra: %45.
- C) 5 langiletik 10ra: %65.
- D) 11 langiletik 19ra: %85.
- E) 20 langiletik gora: %95.

Hobari hau erregutua da, eta eraikuntza, instalazio edo obraren lizentzia-eskaera aurkezten den unean eskatu beharko da. Hobaria Udaleko Osoko Bilkuraren gehiengo soilez onartu beharko da.

Ordenantza honek 2020ko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondorioak, eta aldatzea edo indarrik gabe uztea erabaki arte egongo da indarrean.

**F. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIKO
ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK BURUTZEAGATIKO
TASAK ARAUPETZEN DITUEN ORDENANTZA****IV. HIRIGINTZA-LIZENTZIAK ETA EXEKUZIO-AGINDUAK**

Gauzatze materialaren aurrekontuaren% 1,4.

Hobaria ezartzen da tasa horren tributu-kuotari dagokionez, betearazpen-aginduetan izan ezik:

200.000 eurotik gorako industria- edo merkataritza-jardueretarako inbertsioak, lan-postuak sortu direla frogatzen badute, hobari hauek izango dituzte:

1. kuotaren ehuneko 50 beti.
2. Gainerako kuotaren ehuneko 20, 40, 60, 80 edo 100ekoa, baldin eta Urduñako udalerrian erroldatutako pertsonak sortutako enplegua ehuneko 10, 20, 30, 40 eta 50ekoa bada, hurrenez hurren.

Ordenantza honek 2020ko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondorioak, eta aldatzea edo indarrik gabe uztea erabaki arte egongo da indarrean.